

SAID BOUAMAMA

# “Arrazakeria desagertuko bada, sostengatzen duen egitura ekonomikoa desegin behar da”



Hitzaldi bira egin du Saïd Bouamama (1958, Kabilia, Aljeria) soziologoak. Aljeriatik Frantziako Estatura ihes egin zuen gurasoekin umea zela. Militante politikoa da 1970eko hamarkadatik, hala nola langile mugimendu sindikaletan eta arrazakeriaren aurkakoetan. Arrazakeria eta kolonialismoa landu ditu bere obran, eta mugimendu politiko iraultzaileez ere idatzi du. Bertan behera utzi behar izan zuen Gasteizen ematekoa zen hitzaldia, ezusteko bategatik, baina Liburutopian elkartu da ARGIArekin. Azken liburuan jaso duen ikerketaz aritu gara hizketan, arrazakeriaz, inperialismoaz eta Frantziako egoera politikoaz.

 LARRAITZ FAGUNDEZ OSA  DOS POR DOS / ARGIA CC BY-SA

**2021ean argitaratu zen frantsesez, eta aurreko gaztelaniaz, zure liburua: *Des classes dangereuses à l'ennemi ennem intérieur. Capitalisme, immigrations, racisme* ("Klase arriskutsuetatik barne etsaira. Kapitalismoa, immigrazioa eta arrazismoa"). Zer nolako harrera**

**izan du?**

Prentsa handiak arbuiatu egin zuen, "estremista" deitu zioten. Aldiz, harre-ra ona izan du inguru militantean. Ez dakit hemen nolakoa den egoera, baina Frantzian gertatzen da badaudela militante, idazle eta antolakundeak oso analisi onak dituztenak kapitalismoari

buruz, baina ez dute ezer esaten kolonialismoaren eta arrazakeriaren inguruan. Beste batzuek kolonialismoaz hitz egiten dute, baina kapitalismoarekin eta arrazakeriarekin lotu gabe. Eta arrazakeria jorratzen dutenek ez dute auzia kapitalismoaren testuinguruan kokatzen. Liburu honen tesia da hiru fenomeno horiek (kapitalismoa, kolonialismoa eta arrazakeria) bereizezinak direla, historikoki eta politikoki.

**Arrazakeria ulertzeko prisma sozioekonomikoa edo materialista defendatu duzu, eta analisi kulturalista eta idealistak kritikatu. Zergatik?**

Ikuspegi kulturalistatik arrazakeria fenomeno ahistorikoa da, gizakiaren alde ilun bat. Horrek armagabetu egiten gaitu, eta ezin da ezer egin. Ikuspegi materialistatik, ordea, beste batzuk dira galderak: noiz sortzen da arrazakeria, zergatik eta zer funtzio betetzen ditu. Aktibista asko egon dira, borondate onarekin, pentsatu dutenak arrazakeria, sinpleki, betidanik existitu dela. Kapitalismoaren aurretik existitzen ziren xenofobia eta etnozentismoa, baina fenomeno ezberdinak

dira: giza talde ezezagunei beldurra, eta norbere taldearekiko lehentasuna, hurrenez hurren. Arrazakeria beste gauza bat da, ordea. Arrazakeria pertsonen arteko ezberdinkeriaaren teorizazioa da, hiru tesitan oinarritua: arrazak existitzen direla, guztiak ez direla maila berekoak, eta goikoek azpikoak zapaltzeko zilegitasuna dutela. Historiak erakusten digu arrazakeriaaren teorizazioak lehen aldiz kapitalismoarekin eta kolonizazioarekin batera agertu zirela, zapalkuntza justifikatzeko. Aurkitu ditudan lehen teorizazioak portugesenak eta espainolenak izan dira, Amerikaren konkista eta masakreen garaikoak. Errekonkista garaiko gutunak ere aurkitu ditut duela gutxi.

### **Ikuspegiak baldintzatzen du ekintza politikoa ere?**

Planteamendu idealista edo kulturalistaren ondorioa da pentsatzea arrazakeriaaren aurkako erantzuna hezkuntzan datzala, enpatia eta errespetua sustatzean... Azalpen materialista geure eginez gero, pentsatu behar dugu ideiak aldatzeko beharrezkoa dela gure gizartearen egiturak eraldatzea. Guztiok baldintza eta eskubide berdinak ditugunean, harreman sozialak berdintasunetik eraikitzen direnean, ahalko ditugu ideiak aldatu. Mentalitateak aldatzera soilik bideratutako ekintza politikoa ez da nahikoa, ez badago ezberdinkeria sortzen eta birsortzen duten egitura

ekonomiko eta politikoak aldatzera ere bideratua.

### **Arrazakeriaaren historia kapitalismoaren eta kolonialismoaren historiarekin batera doala esan duzu. Zer aldatu zuten aurreko mendeko independentzia prozesuek?**

Kolonialismoak itxura ezberdinak har ditzake, eraldatu egiten da. Kolonizazioaren esentzia ez da lurralde bat militarki okupatzea, ekonomikoki menpeko egitea baizik, indarrez. Izan daiteke okupazio militarren bidez, edo forma sotilagoekin. Herrien haserreak aurpegiz aldatzera behartu zuen kolonialismoa, eta inde-



pendentziak lortu ziren. Aurrerapauso handia izan zen, baina ez askapen prozesuaren amaiera. Kolonialismoa dagoen bitartean, arrazakeria egongo da. Ahuldu egin daiteke gure borrokaren eta indar korrelazioaren arabera. Baina desager-tuko bada, sostengatzen duen egitura ekonomikoa desegin behar da. Europako herrialdeetan agerikoa da: migratzaileek esplotazio handieneko sektoreetan egiten dute lan, eta estratifikazio horrek arrazakeria erreproduzitzen du, gainetik dagoen langileak ez baitu azpian duena burkide bezala ikusten.

### **Beraz, zer funtzio du arrazakeriak sistema kapitalistan?**

Arrazakeriak hiru funtzio ditu. Lehena ekonomikoa da, bai. Bigarrena, politikoa: langile klasea bereiztea, subjektibitate komun bat oztopatzea eta ezberdinkeria- ren jatorria ezkutatzea. Eta hirugarrena, ideologikoa: herriaren zati bat bestearen aurka jartzea. Dinamika hori oso arrisku- sua da krisi garaian batez ere, faxismoa- ren oinarria delako.

Benetan jokoan dagoena zera da: nola egingo dugu langileria bateratzeko, elka- rrekin borrokatzeko? Esaten bada ez da- goela ezberdinkeriarik, ez da ezer egingo. Onartzen bada baietz, kapitalismoak hie- rarkizatu egiten dituela langileak, orduan auzi konkretu bati heldu behar diogu: zer egingo dugu, zehatz hitz eginda, langile kla- searen batasuna lortzeko?

Frantzian grebetan migratzaile askok hartzen dute parte, baina ez daude pro- portzio berean antolakunde sindikal eta politikoetan. Horretarako beharrezkoa da antolakunde horiek sektore migratzaile- en egoera sozial eta arazo espezifikoak kontuan izatea.

**Egin duzun ikerketaren arabera, Frantziako Estatuan gaur egun**

### **indarrean dauden migratzaileen aurkako diskurtso arrazista asko XIX. mendetik datoz.**

Frantziar nazioa eraikitzeke eredu bera aplikatu zuten gero kolonizaziorako. XVIII. mendean burgesiak herrialde oso- ra zabaldu behar zuen merkatua, eredu ekonomiko kapitalista, eta horretarako tokian tokiko egitura ekonomiko eta so- ziokulturalak suntsitu behar zituen. Ho- rrek zentro kapitalistara migrazio ma- siboa eragin zuen. Gero, gauza bera egin zuten eskala internazionalen.

### **“Kolonizazioaren esentzia ez da lurralde bat militarki okupatzea, ekonomikoki menpeko egitea baizik”**



Herrialde askotan gertatu zen, baina Frantziak baditu zenbait berezitasun. Ba- tetik, borroka sozial erradikalen historia: 1789, 1793, 1830, 1848ko Komuna... Bes- te herrialde batzuen aldean, beldur han- diagoa zioten langile mugimenduari. Bes- tetik, Frantzian krisi demografiko handia egon zen Europako beste herrialdeetan baino lehenago. Egoera horretan, lan mer- katua estratu etnikoen arabera antolatu zen, [Frantziako Estatu barruko] jatorria- ren araberrako estratuetan.

Egin dudan ikerketarako garai horre- tako bretoien, auverniarren, eta abarren aurkako diskurtsoak aztertu ditut. Ha- rrigarria da, gaur egun migratzaileen aurka erabiltzen den diskurtso berbera da. Ez hori bakarrik: lan mota berdinak egiten dituzte. Horregatik diot eredu bera aplikatu dela.

Frantziak harro hitz egiten du giza es- kubideez, baina historikoki kultura bat inposatu du eta bere nazioa eraiki du na- zio txikien ukazioaren gainean. Batasun politikorako batasun kulturala, hori da Frantziaren dominazio logikaren oina- rrizko printzipioa. Eta horretarako gerra egin diete bere muge barruko herriei.

### **Bretoiei, auverniarrei... ez integratzea egozten zieten jada garai hartan, gaur egungo migratzaileei bezalaxe. Gogor kritikatu duzu integrazioaren paradigma.**

Integrazioaren ideia zaborretara bota behar dugu. Integrazioan pentsatzeak berdintasunarekin pentsatzea oztopatzen du. Integrazioaz ari garenean, pentsatzen dugu migratzailea egoera kaskarrean da- goela oraindik bide bat duelako egiteko, ez delako eraldatu, ez duelako bertako kultura barneratu. Baina konponbidea ez da pertsona horien transformazioa, tratu berdintasuna baizik. Eta ikuspegia ezin da izan “integratzen lagundu behar diegu”, baizik eta “sistema ekonomiko justu bat eraiki behar dugu”. Migratzaileak behar- tuta daude bazterketara eramaten dituz- ten sektoreetan lan egitera. Izatekotan, berdintasunak ekarriko luke integrazioa, ez integrazioak berdintasuna. Familia migratuetakoa bigarren belaunaldiek argi ikusi zuten: “Gu integratzeko politikak egin behar direla diote, baina nola, hemen jaio gara-eta?”.

### **[Frantzian] komunitarismoa ere egozten zaie migratzaileei, euren burua isolatzen dutela eta ghettoak sortu. Separatismoa ere bai. Ideia horiek ere aspalditik datoz.**

Bretoiei ere “komunitarista” deitzen zie- ten XIX. mendean. Geroago espainiarrei ere bai. Eta abar luze bat. Akusazio horiek ere langileak banatzeko erabili dira. Bai-

**goizetik  
arrats**

**HURBILEKOA,  
ANTXETAN.**

89.7/90.5/105.8/94.0FM  
AIRK DAB+ BAIONA 10D  
antxetamedia.eus





na, integrazioaren auziarekin bezala, zein da kausa eta zein ondorioa? Dominazioaren logikak inbertitu egiten ditu. Ezberdinkeria sortzen du segregazioa. Frantzian etxebizitza sozialak esleitzeko sistemak, adibidez, eragiten du segregazioa.

Separatismoari dagokionez, krisi garaian Frantziak nazioaren barne-etsaiak sortu ditu, borrokatu beharrekoak: Frantziako herri indigenak (bretoiak, okzitanoak, euskaldunak...), komunistak, anarkistak, migratzaileak, islama... Hori ere erakusten du ikerketak.

**Liburuan jorratu duzu, bestalde, migrazioaren eta arrazakeriaren auzia ulertzeko erabiltzen diren terminoak ez direla ausazkoak, ulermen markoa ezartzen dutela eta hori ere bataila-eremua dela. Gauza bera da, adibidez, “errefuxiatuen krisiaz” hitz egitea, edo “migrazio krisiaz”?**

Ez noski, nahita egin zuten al daketa. Hala ere, harrera krisiaz hitz egin beharko genuke, nire ustez. Arazoa ez da migrazioa, arazoa da Europako herrialdeek ez dutela behar bezalako harrera eredu antolatuta. Bestalde, azken urteetan ezkerreko mugimenduek, iraultzaileek... ez diote garrantzirik eman hitzen bataila horri. Eskuinak eta faxismoak bai, ordea. Rassemblement National eskuin muturreko alderdiak lehenengo kongresuan esan zuen: “Lortu behar dugu jendeak ez dezala klase sozialez hitz egin, baizik eta identitateaz, eta orduan irabaziko dugu”. Eta zerrenda bat zabaldu zuten, jasotzen zuena zer hitz erabili behar ziren eta zein ez. Adibidez, kotizazioez beharrean, “karga sozialez” hitz egin behar zela. Hori 1970eko hamarkada hasieran. Eta asko irabazi dute. RN-k beraien terminoak inposatzea lortu du. Guztiz normalizatuta daude eztabaida publikoan, edozeinek erabiltzen ditu. Argi dago eztabaidaren markoa ezartzea lortu dutela, eta pentsamendua bideratzea.

**Presio handia egin dute politikariek “estatu arrazakeriaz” edo arrazakeria instituzionalaz hitz**

**egin ez dadin. Zergatik hainbeste?**

Frantziako krisi politikoa sakonagoa dela esango nuke, adibidez, Espainiako Estatuko baino. Jaka Horien Mugimendua, pentsiodunen mobilizazioak (1968tik Frantzian egon diren mobilizazio handienak), Nahel-en hilketaren ondorengo protestak auzo popularretan... Azken urteetako mobilizazio handienak gertatu



dira, langile munduko fakzio ezberdinekin. Bakoitza bere aldetik eta ez denak batera antolatuta, esan behar da. Testuiguru horretan dator estatuaren faxistizazioa, kontzeptu batzuk debekatzeko saiakerak... Kontrola areagotu beharra dute.

**Nabari dira autoritarismoaren eta faxismoaren gorakadak?**

Estatua faxistizatzen ari da. Historiak erakusten du talde faxistek ez dutela boterea eurek bakarrik erdiesten, ez bada estatuak hauspotuta edo horien konplizitatearekin. Faxismoa marjinala izan daiteke hamarkada batzuetan eta klase dominanteak bultzatu krisi garaian. Adibidez, Frantzia nagusi-

tasuna galtzen ari denean Malin, Nigerian... Orduan, faxismoaren eskaintzak demanda aurkitzen du. Kalean ere nabari da. Esango nuke ez direla gertatzen oraindik bete-betean faxismoaren baldintza guztiak, baina bai asko. Lehenik, pobretzea eta klase ertainaren degradazioa. Bigarren, krisi politikoa. Ikusi besterik ez dago Frantziako ezegonkortasuna. Hirugarrenik, borroka sozialen gorakada. Frantzian hiru elementu horiek mami-tzen ari dira.

**Zein egoeratan daude Frantziako Estatuko langile mugimenduak eta arrazakeriaren aurkakoak horri aurre egiteko?**

Azken urteetan konfrontazio handiak egon dira. Adibidez, mugimendu antirrazistak islamofobiaren gorakadaz hitz egiten zuten, polizia-indarkeria sistematikoaz. Eta bere burua ezkerrekotzat zuen sektore batek, mugimendu sindikalararen sektore handi batek, ez zuen hori aitortu nahi. Gertakari puntualak zirela esaten zuten. Baina aurrerapausoak eman dira. Adibidez, Mélenchon bezalako pertsona baten islamofobia, polizia-indarkeria eta Palestinaren auzia salatzea benetan pentsaezina zen orain dela urte oso gutxi. Esan nahi dudana da horrek ilustratzen duela pausoak eman direla ideologikoki.

**Saiatu al dira islamofobia erabiltzen Palestinaren**

**aldeko elkartasun sentimendua eta mugimendua kaltetzeko?**

Hona izan den eboluzioaren adierazle bat: Frantzian eskuin muturra antisemitita izan da historikoki, gaur egun jada ez da antisemita eta Israel babesten du. Israelen babesle handienetakoa da Frantziako eskuin muturra. Termino orokorretan, etsai orain islama da, terrorismoa, *islamoezkerkeria*. Etsai erabilgarriagoak agertzen badira, aurreko etsaiak lagun bihurtzen dira. Ni, haurra nintzenean, orain beltzak eta arabiarak tratatzen dituzten bezalaxe tratatzen zituzten espainiarrak Frantzian. Espainia Europar Batasunean sartu zenean, egun batetik bestera “zu-



**“Frantzian grebetan migratzaile askok hartzen dute parte, baina ez daude proportzio berean antolakunde sindikal eta politikoetan”**



ritu” zituzten espainiarrak, ordura arte beltzak deitzen zieten berberak. Gauza bera juduekin.

Frantzian iritzi publikoa aldatu da Palestinarekiko, bai, baina fenomeno globala da. Lehen aldiz 1948tik iritzi publiko mundiala Palestinaren aldekoa da. Kanean jendea Palestinaren aldekoa da, eta alderdi guztiak sionista deklaratuak.

**Gehitu nahi duzu besterik?**

Ba bai, egia esan. Munduaren ikuspegi, nola esan, iraultzailea ez, baina humanis-

ta duten horiei guztiei, esan nahiko nieke faxismoa ez dela pertsona batzuen gaiztakeria kontua. Faxismoa agertzen dela sistema kapitalistak bere burua iraunarazteko behar duenean. Arriskua ez dela Hitler edo Franco gaizto bat agertuko dela ausazko egun batean. Faxismoaren esentzia ez da hori. Faxismoa krisiari klase dominanteak ematen dion erantzuna da, harreman sozial kapitalistak indarrez mantentzeko. Gauzak horrela, ezin da gutxietsi Europan gertatzen ari den krisi prozesua. ●

